UGT

FEMINISTA SINDIKALISTAK INDARKERIA MATXISTAK DESAGERRARAZTEKO POLITIKA PUBLIKOEN ALDE

UGTren manifestua Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunaren harira

UGT Euskaditik, azaroaren 25 erabakigarri honen aurrean, ADIERAZI NAHI DUGU klase-sindikalismo feministaren indar guztia erabiliko dugula indarkeria matxistaren adierazpen guztiak desagerrarazteko eta berariazko politika publikoak indartzea exijitzeko, indarkeria horren arrazoiak ezabatu, haren agerpena prebenitu eta pairatzen duten emakumeei eta adingabeei babes eta arreta integrala emateko.

Horretarako, gure konpromiso iraunkor eta atzeraezinetik, dei egiten diegu langileei eta herritar guztiei indarkeria horien aurka borrokatzeko, haien jatorriari eta adierazpenei aurre eginez, erabat desagerrarazi arte, lantokietatik gizarteko azken txokoraino. Izan ere, emakumeei indarkeria matxistarik gabeko bizitza bermatzea ezinbesteko baldintza da gizarte erabat demokratikoa izateko.

- **Emakumeen aurkako indarkeria guztiei aurre egiteko deia egiten dugu, eta horretarako konpromisoa hartzen dugu: berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxisten aurkako berariazko politika publikoak areagotzea, beharrezko baliabideak, azpiegiturak, langile espezializatuak eta tresnak jarrita, emakume eta adingabe biktimei arreta integral osoa bermatzeko, baita arriskua hautemateko eta prebenitzeko ere.**

- **Sexu-generoan oinarritutako egiturazko desberdintasunei aurre egiteko deia egiten dugu, eta horretarako konpromisoa hartzen dugu; izan ere, desberdintasun horiek eragiten dituzte, azken batean, indarkeria horiek, eta/edo erraztu egiten dituzte, ekintzaz nahiz ez-egitez.**

- **Genero-indarkeriaren negazionismoari aurre egiteko deia egiten dugu, eta horretarako konpromisoa hartzen dugu, baita eskuin muturrak eta eskuinak gobernu autonomikoetan eta tokiko gobernuetan arlo horretako politika eta zerbitzuei ezartzen dizkieten atzerapauso eta murrizketei aurre egiteko ere. Era berean, haien diskurtso antifeministei eta berdintasun-politiken eta emakumeen eskubideen aurkako diskurtsoei aurre egingo diegu.**

Edozein emakumeren aurkako indarkeria-ekintzak gertatzen diren eremu guztiak hartzen ditu gure konpromisoak. Hala ere, bereziki berresten ditugu gure erabakia eta lan sindikala, lan-inguruneak indarkeria matxistarik gabeko espazio bihurtzeko.

Indarkeriaren aurkako borrokan AURRERAPAUSO garrantzitsutzat jotzen dugu talde politiko guztiek (Vox-ek izan ezik) 2025eko otsailean Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren eguneratzea onartu izana. UGTtik aktiboki parte hartu dugu hura prestatzen. Eguneratzeak 462 neurri biltzen ditu, eta erakundeen jardunean genero-indarkeriaren forma espezifiko berriei heltzen die, hala nola indarkeria digitalari, bikarioari eta ekonomikoari. Gainera, hasierako aurrekontua bikoizten du, datozen 5 urteetarako 1.500 milioi euro bideratuta.

Halaber, pozik hartzen ditugu urriaren 20ko 31/2026 Errege Lege Dekretuak Gizarte Segurantzaren prestazioetan jasotzen dituen azken bi hobekuntzak: batetik, genero-indarkeriaren biktima diren eta lesioen ondorioz lan egin ezin duten emakume langileentzako aldi baterako

ezintasun-egoera berezi berria; eta, bestetik, emakumearen aurkako indarkeriaren ondorioz hildako emakumeek sortutako zurztasun-pentsioen zenbatekoa handitzea, umezurtzak erabateko zurztasunaren pareko egoeran daudenean. Azken neurri horren helburua da kaltetutako adingabeen eta pertsona zaurgarrien babes ekonomikoa zabaltzea; hileko gutxieneko zenbatekoa une bakoitzean indarrean dagoen hileko lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitza izango da.

Bestalde, bi arau daude abian, eta funtsezkotzat jotzen dugu ahalik eta lasterren onartzea.

- Ministroen Kontseiluak Indarkeria Bikarioari buruzko Lege Aurreproiektua onartu zuen (2025), eta Gorteetara bidali da dagoeneko, Lege Organikorako Proiektu gisa (2026).

- Hala ere, oraindik izapidetzen ari da gizakien salerosketaren eta esplotazioaren aurkako Lege Organiko Integralaren Aurreproiektua. Ministroen Kontseiluak 2024an onartu zuen lehen itzulian, eta berriro onartu du, aldaketekin, gure ordenamendu juridikora ekartzeko 2024/1712 (EB) Zuzentaraua; horrek gizakien salerosketa prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari eta biktimak babesteari buruzko 2011/36/EB Zuzentaraua aldatzen du. Beraz, oraindik Lege Proiektu bihurtu eta Gorteetara bidaltzeko dago.

Aurrerapenak eta baliabideak gorabehera, indarkeria matxistek emakumeen bizitzan eta aukeretan, lanekoetan ere bai, eragiten jarraitzen dute, kendutako edo suntsitutako bizitzetan onartezina den kostuarekin.

ZENBAIT DATU NABARMENDUZ

Berdintasunaren arloko nazioarteko erakundeek gomendatzen duten bezala, zenbait datu nabarmentzen ditugu, estatistika horiek beharrezkoak baitira indarkeria horren izugarrizko dimentsioa neurtzeko eta eskuin muturraren diskurtso negazionistari aurre egiteko.

Bikotekideek edo bikotekide ohiek egindako feminizidioak: 2003an zenbatzen hasi zirenetik urriaren 29ra arte, 1.385 emakume erail dituzte. 2025ean 48 emakume erail zituzten, eta 18 urtetik beherako 41 adingabe umezurtz utzi. 2026an, orain arte, 44 emakume erail dituzte (egiaztatutako azken kasua Bartzelonan, 38 urteko emakume bat), eta guztira 35 adingabe geratu dira umezurtz.

Indarkeria bikarioaren ondorioz eraildako adingabeak: 2013tik (arrazoi horregatik zenbatzen hasi zirenetik) 2026ko urriaren 22ra arte hildako adingabeak: 68. 2025ean: 3 adingabe. 2026an, orain arte: 3 (azken kasua Alacanten, martxoan, 3 urteko neskatila bat).

Beste arrazoi batzuengatiko feminizidioak: 2022tik, estatistika hau egiten hasi zenetik, 2025era arte: 103 emakume erail dituzte (familia-eremuan 17 / gizarte-eremuan 6 / sexu-indarkeriagatik 5). 2025ean, orain arte: 9 biktima (familia-eremuan 6 / gizarte-eremuan 2 / feminizidio bikarioa 1).

Salaketa kopurua: Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren 2024ko XVIII. Urteko Txostenaren arabera (Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza -DGVG-, 2026), 2024an bikotekidearen edo bikotekide ohiaren genero-indarkeriagatiko 199.094 salaketa iritsi ziren epaitegietara, batez beste 544 salaketa egunean. Gehienak biktimak berak jarri zituen, %72,1; %18,8 polizia-atestatuetatik eta hirugarrenengandik etorri ziren, eta %7,2 lesio-parteetatik.

Indarkeria ekonomikoa: Ez dago horri buruzko estatistika ofizialik; beraz, inkesten bidezko zenbatespenen bitartez baino ezin gara hurbildu errealitate horretara. Genero Indarkeriari buruzko 2022ko Europako Inkestak Espainiarako emandako datuen arabera, bikotekidea izan duten 16 eta 74 urte bitarteko emakume guztien %7,8k (1.306.791 emakumek) bikote barruko indarkeria ekonomikoa jasan dute bizitzako uneren batean. Emakumeen %6,5i (1.085.685), bikotekideak edo bikotekide ohiak familia-ekonomia osoa kontrolatu die, edo egiten dituzten gastuak gehiegi kontrolatu dizkie. %3,0ri (498.185) lan egitea debekatu diete.

Sexu-indarkeria: Barne Ministerioaren datuen arabera, 2025ean ia 24 mila delitu-ekintza salatu ziren (23.668), hau da, batez beste 65 delitu egunean. Sexu-erasoak eta sarketa bidezko sexu-erasoak, batera, erregistratutako delitu guztien %80 baino gehiago dira. Kasuen %90ean emakumeak dira biktimak (% 84,6). Eta kasuen

%96an gizonezkoak dira erasotzaileak. 2026an, orain arte, Espainian egunean 15 bortxaketa salatzen direla kalkulatzen da, hau da, bortxaketa bat ordu eta 35 minutuan behin; eta 45 sexu-eraso egunean (sarketarik gabe), bat 32 minutuan behin.

Salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktimak: Barne Ministerioaren datuen arabera, Espainian, 2024an, gizakien salerosketaren eta esplotazioaren 1.794 biktima hauteman ziren, gehienak emakumeak (%56); 966 pertsona atxilotu zituzten, eta 110 talde edo erakunde kriminal desegin. Sexu-helburuko salerosketari eta sexu-esplotazioari dagokienez, 632 biktima identifikatu ziren (256 salerosketagatik eta 376 esplotazioagatik), tartean 15 neskatila eta mutiko bat; %98 emakumeak ziren.

INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN ESKUBIDE SOZIOLABORALAK DEFENDATUZ ETA HOBETUZ LAN-INGURUNEKO INDARKERIA MATXISTAREN AURKA

UGTren sindikalismo feministatik kezkatuta gaude genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubide soziolaboralak ez direlako ezagutzen edo oztopatu egiten direlako. Hori ondoriozta daiteke indarkeriaren biktima diren emakumeen kontratu hobaridunen eta ordezkapen-kontratuen kopuru txikitik, aipatutako DGVGren txostenak 2024ko datuekin jasotzen duen bezala: 2024an emakumeen 81.692 kontratu hobaridun formalizatu ziren. Horietatik 405 baino ez (% 0,5) ziren indarkeriaren biktima ziren emakumeenak (388 bikotekidearen indarkeriaren biktimenak eta 17 sexu-indarkeriaren biktimenak), denak kontratu mugagabeak; gehiago ziren langile kualifikatuenak (168, % 74) oinarrizko lanbideetakoak baino (132).

Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktimak ordezkatzeko 277 kontratu egin ziren guztira (174 emakumeek ordezkatu zituzten, eta 103 gizonek). Gainera, indarkeriaren biktima ziren emakumeen 192 lan-kontratu baino ez ziren eten edo azkendu, biktimak langabeziagatiko kotizaziopeko prestaziorako eskubideari eutsita.

Era berean, kezkatzen gaituzte lantokietan edo, zentzu zabalagoan, lan-inguruneetan gertatzen diren indarkeria matxistek. Bereziki, sexu-jazarpenak eta sexuan oinarritutako jazarpenak. Sexu-indarkeriaren eta genero-indarkeriaren adierazpen bat da, eta estatistika ofizialek, oro har, ikusezin bihurtzen dute, gure aldarrikapenak gorabehera. Horregatik, inkesten bidez baino ezin dugu haren prebalentzia zenbatetsi.

Genero Indarkeriari buruzko 2022ko Europako Inkestak Espainiarako emandako datuen arabera (2023ko azaroan argitaratuak), Espainian bizi diren, 16 eta 74 urte bitartean dituzten eta bizitzan noizbait lan egin duten emakume guztien % 28,4k (4.489.219) sexu-jazarpena jasan dute lanean bizitzako uneren batean. Azken 5 urteetan biktimen ehuneko zenbatetsia % 12,1 da (1.913.470), eta azken 12 hilabeteetan % 4,6 (723.958).

Ia milioi bat emakume langilek lantokietan edo haien inguruneetan sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena jasateko arriskua izatea egoera onartezina iruditzen zaigu UGTn, eta gure baliabide eta ahalmen guztiekin egiten diogu aurre. Ezkutuan dagoen eta ezkutatzen den errealitate bat da, baina beharrezkoa da ikusaraztea, salatzea, prebenitzea eta desagerraraztea.

Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloak bezalako tresnak ditugu. Hitzarmen kolektiboen eta berdintasun-planen negoziazio kolektiboaren bidez ezarri dira lantokietan, baina oraindik enpresa guztiek ez dute halakorik, nahiz eta legeak horretara behartu. Horregatik, protokolorik ez dagoen tokietan horiek aldarrikatzen jarraitzen dugu.

Gainera, iaz adierazi genuen bezala, beharrezkotzat jotzen dugu lan-eremuko baliabideak eta jarduteko bideak areagotzea. Horregatik, berriro proposatzen dugu enpresetan berdintasuneko ordezkari sindikalaren berariazko figura izatea; haren eginkizunen artean egongo litzateke indarkeria matxistei buruzko aholkularitza, genero-indarkeria barne.

GURE ESKUMEN SINDIKALEN EREMUAN, UGTtik HONAKO HAUETAN LANEAN JARRAITZEN DUGU

- Indarkeria matxistaren oinarrian dauden arrazoi materialak eta kulturalak ezabatzen.
- Negoziazio kolektiboan berdintasun-planak eta ekintza positiboko neurriak negoziatzen, diskriminazioak, sexu-estereotipo sexistak eta emakumeen aurkako indarkeriak elikatzen dituzten egiturazko desberdintasunak desagerrarazten laguntzeko.
- Gure eragile sindikalak indarkeria matxisten aurrean prestatzen eta sentsibilizatzen.
- Lantokietako langileak prestatzen eta sentsibilizatzen.
- Legerian aurreikusitako sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloak negoziatzen eta aplikatzen.
- Negoziazio kolektiboaren bidez eta berariazko neurriekin, genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubide ekonomiko eta soziolaboralak hobetzen.
- Administrazio publikoekin eta elkarte feministekin etengabe elkarlanean aritzen, indarkeria horiek, haien arrazoiak eta adierazpenak desagerrarazteko helburu partekatuarekin. Gure lan sindikalean begirada intersekzionala txertatzen dugu, talde jakinetako emakumeek arrisku handiagoak dituztelako, hala nola migratzaileek, gazteek edo egoera prekarioenetan daudenek, besteak beste.
- Biktimei eta bizirik atera diren emakumeei aholku ematen.
- Elkarrizketa sozialaren esparruan beharrezko lege-egokitzapenak aldarrikatzen, indarkeriari eta jazarpenari buruzko LANEren 190. Hitzarmena erabat ezartzeko.

UGT EUSKADItik

ZERO TOLERANTZIA EXIJITZEN DUGU emakumeen aurkako indarkerien aurrean.

Hezkuntza-maila guztietan hezkidetza unibertsalizatzea ALDARRIKATZEN DUGU.

GOBERNU ZENTRALARI ETA GOBERNU AUTONOMIKOEI ETA TOKIKO GOBERNUEI ESKATZEN DIEGU indarkeria matxista prebenitzeko eta berdintasuna sustatzeko berariazko politikak bultza ditzatela, baliabide iraunkorrekin, indarkeria matxista guztien biktimei prebentziorako eta arreta integralerako zerbitzu publikoak bermatzeko. Zerbitzu publiko horiek funtsezkotzat jo daitezela, dagozkien arau-egokitzapenen bidez, eta diziplina anitzeko talde espezializatuak izan ditzatela, lan-baldintza duin eta egonkorretan. GORTEEI ETA GOBERNUARI EXIJITZEN DIEGU premiaz amai ditzatela indarkeria bikarioari buruzko Lege Organikoaren Proiektua eta gizakien salerosketaren eta esplotazioaren aurkako Lege Organiko Integralaren Aurreproiektua onartzeko izapideak.

ALDERDI POLITIKO DEMOKRATIKOEI ESKATZEN DIEGU bazter ditzatela diskurtso negazionistak eta biktimei ematen zaien arreta integralean, zerbitzu publikoetan eta berdintasunaren aldeko eta indarkeria horien aurkako politiketan egiten den edozein atzerapauso edo murrizketa.

GOBERNUARI, INDAR POLITIKOEI ETA, ORO HAR, NAZIOARTEKO KOMUNITATEARI ESKATZEN DIEGU defenda ditzatela gerra- eta gatazka-eremuetan edo erregimen totalitarioetan sexu-indarkeria eta Estatuaren indarkeria modu larriagoan eta zigorgabetasun handiagoz pairatzen ari diren emakumeen eskubideak. Ez ditugu ahazten Afganistango, Irango, Palestinako, Sudango eta munduko beste hainbeste lekutako gure ahizpak.

UGTtik DEI EGITEN DIEGU langileei eta herritar guztiei azaroaren 25 honetan oihu bakarrean bat egiteko, mobilizazio eta manifestazio feministetan elkartuta, indarkeria matxistarik gabeko gizarteak, lekuak eta bizitzak ahalbidetuko dituzten POLITIKA PUBLIKOAK aldarrikatzeko.